



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

V. legegintzaldia

Iruñean, 2001eko azaroaren 12an

115 ZK.

A U R K I B I D E A

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

- Foru Lege proposamena, LOGSEk jasotako goi mailako musika ikasketak Nafarroan jartzeari buruzkoa. Zuzenketak aurkezteko epearen luzapena (3. or.).
- Foru Lege proposamena, LOGSEk jasotako goi mailako musika ikasketak Nafarroan jartzeari buruzkoa. Zuzenketak aurkezteko epearen luzapena (3. or.).
- Foru Lege proposamena, Nafarroako Foru Komunitatean irradi-komunikazioko instalazioak antolatzekoa, Zuzenketak aurkezteko epearen luzapena (4. or.).
- Foru Lege proposamena, Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileentzako neurriei buruzko maiatzaren 24ko 10/2001 Foru Legea aldatzeko. Zuzenketak aurkezteko epearen luzapena (4. or.).

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Audenasarekin behar diren kudeaketak egin ditzan, A-15 autobideko erabiltzaile txartelak berritzeko, Batasuna Parlamentuko Taldeak aurkeztua (5. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da berehala has ditzan Burlatan beste ikastetxe publiko bat eraikitzeko behar diren tramiteak, Ermitaberri ikastetxean egun jasan behar diren pilaketa arazoei konponbidea emateko, Batasuna Parlamentuko Taldeak aurkeztua (6. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da Hauteskundeen Araubide Orokorrari buruzko Lege Organikoa alda dezan, hain zuzen ere hauteskunde prozesu guztietan demokrazia paritarioa ezartzea bideratzeko behar diren neurriak jartzeko, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak aurkeztua (7. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da behi-aziendaren entzefalopatia espongiformeak eragindako arazoak konpontzea helburu duten eskaera ekonomikoei aurre egin diezaien. Erretiratutako mozioa (8. or.).

F SAILA:**Galderak:**

- Galdera, Compañía Tecnológica de Corella-Construcción, SA enpresari emaniko laguntzei buruzkoa, Batasuna Parlamentuko Taldeak jaunak egina (9. or.).
- Galdera, Nafarroak Madrilen duen enbaxadoreak eginiko lanei buruzkoa, foru parlamentari José M^a Aierdi Fernández de Barrena jaunak egina (9. or.).
- Galdera, irrati-difusioko emisoren adjudikazioen egungo titularrei buruzkoa, foru parlamentari José M^a Aierdi Fernández de Barrena jaunak egina (10. or.).
- Galdera, Sanduzelain eta Arrotxapean eraikitako BOEen adjudikaziorako aurkezturiko eskariei buruzkoa, foru parlamentari Fernando Viedma Molero jaunak egina (11. or.).
- Galdera, farmazia berriak irekitzeagatik igorritako tasei buruzkoa, foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak egina (12. or.).
- Galdera, Radio Universidad eta NET 21 irratiaren euskarazko programazioaren jarraipenari buruzkoa, Batasuna Parlamentuko Taldeak egina (13. or.).
- Galdera, Cascanten gaztelania ikasten laguntzeko klaseak ez emateko erabakia berraztertzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (13. or.).

G SAILA:**Txostenak, deialdiak, eta Parlamentuko informazioa:**

- Nafarroako Foru Komunitatean behi-aziendaren entzefalopatia espongiformearen jarraipena eta kontrola egiteko batzorde bereziak onetsitako txostena (15. or.).

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Lege proposamena, LOGSEk jasotako goi mailako musika ikasketak Nafarroan jartzeari buruzkoa

ZUZENKETAK AURKEZTEKO EPEAREN LUZAPENA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko azaroaren 5ean egindako bilkuran, ondoko Erabakia hartu zuen, besteak beste:

Lehena.- LOGSEk jasotako goi mailako musika ikasketak Nafarroan jartzeari buruzko Foru Lege proposamenari zuzenketak aurkezteko epea **2002ko otsailaren 4ko eguerdiko hamabiak arte** luzatzea. Aipatu Foru Lege proposamena

2001eko irailaren 3ko 87. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Bigarrena.- Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2001eko azaroaren 7an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Foru Lege proposamena, LOGSEk jasotako goi mailako musika ikasketak Nafarroan jartzeari buruzkoa

ZUZENKETAK AURKEZTEKO EPEAREN LUZAPENA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko azaroaren 5ean egindako bilkuran, ondoko Erabakia hartu zuen, besteak beste:

Lehena.- LOGSEk jasotako goi mailako musika ikasketak Nafarroan jartzeari buruzko Foru Lege proposamenari zuzenketak aurkezteko epea **2002ko otsailaren 4ko eguerdiko hamabiak arte** luzatzea. Aipatu Foru Lege proposamena

2001eko irailaren 3ko 87. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Bigarrena.- Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2001eko azaroaren 7an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Foru Lege proposamena, Nafarroako Foru Komunitatean irрати-komunikazioko instalazioak antolatzekoa

ZUZENKETAK AURKEZTEKO EPEAREN LUZAPENA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko azaroaren 5ean egindako bilkuran, ondoko Erabakia hartu zuen, besteak beste:

Lehena.- Nafarroako Foru Komunitatean irрати-komunikazioko instalazioak antolatzeko Foru Lege proposamenari zuzenketak aurkezteko epea **2002ko otsailaren 4ko eguerdiko hamabiak arte** luzatzea. Aipatu Foru Lege proposamena

2001eko uztailaren 12ko 76. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Bigarrena.- Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2001eko azaroren 7an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Foru Lege proposamena, Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileentzako neurriei buruzko maiatzaren 24ko 10/2001 Foru Legea aldatzekoa

ZUZENKETAK AURKEZTEKO EPEAREN LUZAPENA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko azaroaren 5ean egindako bilkuran, ondoko Erabakia hartu zuen, besteak beste:

Lehena.- Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileentzako neurriei buruzko maiatzaren 24ko 10/2001 Foru Legea aldatzeko Foru Lege proposamenari zuzenketak aurkezteko epea **2002ko otsailaren 4ko eguerdiko hamabiak arte** luzatzea. Aipatu Foru Lege proposamena

2001eko irailaren 3ko 87. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Bigarrena.- Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2001eko azaroren 7an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

E saila:

JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Audenasarekin behar diren kudeaketak egin ditzan, A-15 autobideko erabiltzaile txartelak berritzeko

BATASUNA PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Batasuna Parlamentuko Taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Audenasarekin behar diren kudeaketak egin ditzan, A-15 autobideko erabiltzaile txartelak berritzeko".

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko azaroaren 5ean egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Ekonomia eta Ogasun Batzordean egitea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentuko taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkezten ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2001eko azaroaren 7an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

MOZIOAREN TESTUA

Batasuna Parlamentuko Taldeak, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduan xedatutakoaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du Ekonomia, Ogasun eta Aurrekontu Batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko.

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Audenasarekin behar diren kudeaketak egin ditzan A-15 autobideko erabiltzaile txartelak berritzeko, ordainketen berankortasun edo titularren bikoiztasun kasuetan salbu.

Batasuna Parlamentuko Taldeak orain gutxi jakin zuenez, Audenasak erabaki du A-15 autobideko erabiltzaile txartelak zenbait kasutan ez berritzea. Gai horri buruz, ahoz erantzuteko galdera egin genuen, eta urriaren 26ko Osoko Bilku-

ran eman zigun erantzuna Ekonomia eta Ogasun kontseilari Francisco Iribarren jaunak.

Iribarren kontseilariak, erantzunean, Audenasak erabiltzaile txartelak zenbait kasutan ez berritzea erabaki duela berretsi zuen; hiru kasutan, hain zuzen: 1) ordainketen berankortasuna 2) titular berak bi txartel baditu 3) txartela ez bada erabili azken sei hilabeteetan.

Gure talde parlamentarioa bat dator lehenengo eta bigarren irizpideekin, baina ez ordea hirugarrenarekin. Osoko Bilkuran adierazi genuenez, A-15eko erabiltzaile txartela dugu nafarrok "bidesari sozialaz" baliatzeko modu bakarra, eta, beraz, uste dugu txartelak gutxi edo batere ez erabiltzeagatik baliogabetzea –txartela ez erabiltze hori behin-behinekoa izan daiteke sarritan– oztopoa dela jende guztiak hori erabili ahal izateko; izan ere, nahitaezko baldintza bihurtzen da A-15 txartela edukitzea, euskarri magnetiko horrek bakarrik ematen baitu aukera bidesari sozialaren prezio merkeez baliatzeko, noizbehinka bada ere.

Horregatik guztiagatik, gure talde parlamentarioak, honako erabaki proposamena aurkeztu du:

"Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Audenasako administrazio kontseiluan dituen ordezkariak honen alde egin dezaten: A-15eko erabiltzaile txartelak besterik gabe berrituko dira, non eta zorrik ez duten, titular batek bi txartel ez dituen edo txartelak erabilera okerra ez duen izan; edonola ere, A-15eko erabiltzaile txartelaren erabilera maila, edozein dela ere, ez da baliozko irizpidea izanen txartel hori baliogabetzeko."

Iruñean, 2001eko urriaren 29an

Eleduna: Joxe Fernando Barrena Arza

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da berehala has ditzan Burlatan beste ikastetxe publiko bat eraikitze behar diren tramiteak, Ermitaberri ikastetxean egun jasan behar diren pilaketa arazoei konponbidea emateko

BATASUNA PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Batasuna Parlamentuko Taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da berehala has ditzan Burlatan beste ikastetxe publiko bat eraikitze behar diren tramiteak, Ermitaberri ikastetxean egun jasan behar diren pilaketa arazoei konponbidea emateko".

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko azaroaren 5ean egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Hezkuntza eta Kultura Batzordean egitea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentuko taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkezten ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2001eko azaroaren 7an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

MOZIOAREN TESTUA

Batasuna Parlamentuko Taldeak, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduan xedatutakoaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Hezkuntza eta Kultura Batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko.

Azken urteotan, Burlatako Ermitaberri ikastetxeak espazio arazoak ditu, matrikulek nabarmen egin baitute gora. Horrela, 213 haur hartzeko zen ikastetxe horrek 377 hartzen ditu egun; 2002-2003 ikasturtean 422 haur matrikulatuko direla aurreikusi da, hau da, hasierako haur kopuruaren ia halako bi.

Espazio falta horren ondorioz, ikasturte honetan, gela gehiago izateko, modulu aurrefabrikatuak erabili behar izan dira; ordea, beste espazio batzuk galdu dira, hala nola ikastetxeko patioa.

Honi gehitu behar zaio ezen ikastetxeak gabezi nabarmenak dituela azpiegiturei dagokienez: ez du ekitaldi-aretorik, liburutegirik, laborategirik edo polikiroldegirik. Egoera hori horrela, hezkuntza kalitatearen arazo larria dugu euskarazko ikastetxe publiko batean, eta ikastetxe honetako gurasoen elkarteak Nafarroako Parlamentuko Hezkuntza eta Kultura Batzordean egin zuen agerraldian argi geratu zen.

Egoera hori dela eta, Ermitaberriko gurasoen elkarteak hezkuntza-ardurak dituztenen aurrean adierazi dituzte kezak; Nafarroako Gobernuarekin ahozko akordioa ere lortu zen 1999ko ekainean, 2003-2004ko ikasturtean ikastetxe berria eraiki eta abian izan zedin. Hala ere, talde honek eginiko galdera bati emaniko erantzunean, Nafarroako Gobernuak berretsi zuen egun, 2001eko urrian, aipatutako akordioa lortu eta 16 hilabete beranduago, ez dagoela jakiterik oraindik obra noiz hasiko eta amaituko den gutxi gorabehera. Oraindik ikastetxea eraikitze proiekturik ere ez da egin, eta horrek pentsarazten du Nafarroako Gobernuak eta ikastetxeko gurasoen elkarteak hitzartu zuten data ezinen dela bete.

Horregatik guztiagatik, Batasuna Parlamentuko Taldeak, honako erabaki proposamena aurkeztu du:

1.- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du berehala has ditzan Burlatan beste ikastetxe publiko bat eraikitze behar diren tramiteak, Ermitaberri ikastetxean egun jasan behar diren pilaketa arazoei konponbidea emateko.

2.- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du ikastetxe hori abian jar dezan 2003-2004 ikasturterako.

Iruñean, 2001eko urriaren 31n

Eleduna: Joxe Fernando Barrera Arza

Mozioa. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da Hauteskunde-en Araubide Orokorrari buruzko Lege Organikoa alda dezan, hain zuzen ere hauteskunde prozesu guztietan demokrazia paritaria ezartzea bideratzeko behar diren neurriak jartzeko

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: "Mozioa. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da Hauteskunde-en Araubide Orokorrari buruzko Lege Organikoa alda dezan, hain zuzen ere hauteskunde prozesu guztietan demokrazia paritaria ezartzea bideratzeko behar diren neurriak jartzeko".

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko azaroaren 5ean egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Osoko Bilkuran egitea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentuko taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkezten ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2001eko azaroaren 7an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

MOZIOAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeko eledun Juan José Lizarbe Baztánnek, Biltzarreko Erregelamenduan xedatutakoaren babesean, mozioa aurkeztu dut Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkuran eztabaida dadin. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da Hauteskunde-en araubide orokorrari buruzko Lege Organikoa alda dezan, hain zuzen ere hauteskunde prozesu guztietan demokrazia paritaria ezartzea bideratzeko behar diren neurriak jartzeko.

Zioen azalpena

Azken hogeitun urteotan, gure araubide konstituzionala ezarri zenetik, emakumeak gero eta presentzia garrantzitsuagoa izan du gizartearen esparru guztietan.

Gure konstituzioak berdintasunaren alde egiten du, baina gure demokraziak osoa izan behar du, eta ezin dugu benetako demokraziaz gozatu baldin eta herritarren erdiek ezin badituzte osoki erabili haien eskubideak. Zenbat eta parekatua izan gizon eta emakumeen parte-hartzea era-

bakiak hartzeko prozesu guztietan, orduan eta sendoagoa izanen da gizarte baten demokrazia.

Instituzio batek baino gehiagok azpimarratu du hori. Pekinen 1995 urtean eginiko Emakumeari buruzko laugarren biltzarrean, Ekintza Plataforma, gomendioak egin zitzaizkien gobernuei neurri estrategikoak har zitzaten hurrengoak desagerarazteko: "gizon eta emakumeen arteko ezberdintasunak egitura politiko eta ekonomikoetan, produkzio jardura mota orotan eta baliabideak eskuratzeko aukeretan", eta, halaber, "gizon eta emakumeen arteko ezberdintasunak boterearen jardunean eta erabakiak hartzean maila guztietan."

Bestalde, Europako instituzioek ere alderdi horiek azpimarratu dituzte. Europar Batasuneko Kontseiluak, 1996ko abenduan onetsitako erabaki baten bidez, hurrengo gomendioak egin dizkie kide diren estatuei: "estrategia bat ezarri behar da, zeinak helburu izanen baitu erabakiak hartzerakoan gizon eta emakumeen parte-hartze parekatua sustatzea eta horretarako neurri egokiak garatu edo sortzea, hala nola, legearen mailako neurriak, behar izanez gero, eta/edo erregelamenduen mailakoak eta/edo neurri sustagarriak" eta "gizarte eragileek, duten autonomia gorabehera, gizon eta emakumeen parte-hartze parekatua sustatze aldera egiten dituzten ahaleginak bultzatu eta lagundu behar dira, eta, orobat, azpimarratu egin behar da zer ardura duten horiek Europako eta kide diren estatuetako batzorde eta komite publikoetarako emakumezko hautagaiak sustatu eta aurkeztean."

Gure ustez, egin diren aurrerapenak gorabehera, emakumeek behar baino ordezkaritza txikiagoa dute politikan eta instituzioetan. Alderdi politikoek, gure ustetan, emakume eta gizonen presentzia parekatua bermatu behar dute, eta beharrezkoa da, orokorrean, hauteskunde prozesu guztietan demokrazia paritaria ezartzea bideratzeko legedi orokor bat.

Erabaki proposamena

1. Nafarroako Parlamentuak, ezberdintasun horretaz jabeturik, Espainiako Gobernua premiatzen du egungo Hauteskunde-en Araubide Orokorrari buruzko Lege Organikoa aztertu eta alda

dezan, horrela hauteskunde prozesu guztietan demokrazia paritarioa ezartzea bideratzeko behar diren neurriak ezartzeko.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du neurriak aztertu eta legebiltzarrari aurkez diezazkion, alderdi politiko

nafarrek demokrazia paritarioa ezar dezaten instituzio nafarretan dituzten ordezkariak dagokienez, Espainiako beste autonomia batzuk eredu hartuta.

Iruñean, 2001eko urriaren 30ean

Eleduna: Juan José Lizarbe Baztán

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da behi-aziendaren entzefalopatia espongiformeak eragindako arazoak konpontzea helburu duten eskaera ekonomikoei aurre egin diezaien

ERRETIRATUTAKO MOZIOA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko azaroaren 5ean egindako bilkuran, ondoko erabakia hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Demokratikoen Elkargunea Parlamentuko Taldeak idazki bat aurkeztu du ondoko mozioa erretiratu duela jakinarazteko: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da behi-aziendaren entzefalopatia espongiformeak eragindako arazoak konpontzea helburu duten eskaera ekonomikoei aurre egin diezaien". Aipatu idazkia ikusita, ERABAKI DA:

1. Nafarroako Demokratikoen Elkargunea Parlamentuko Taldeak aipatutako mozioa erretiratu duela jakitun dagoela adieraztea. Mozio hori 2001eko ekainaren 20ko 68. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2001eko azaroaren 7an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

F saila:
GALDERAK

Compañía Tecnológica de Corella-Construcción, SA enpresari emaniko laguntzei buruzko galdera**BATASUNA PARLAMENTUKO TALDEAK JAUNAK EGINA**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko azaroaren 5ean egindako bilkuran, Batasuna Parlamentuko Taldeak Compañía Tecnológica de Corella-Construcción, SA enpresari emaniko laguntzei buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2001eko azaroaren 7an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN TESTUA

Batasuna Parlamentuko Taldeak, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduan xedatutakoaren babesean, ondoko galderak aurkeztu ditu, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun diezazkion.

Compañía Tecnológica de Corella-Construcción, SA enpresari dagokionez –Prefabricados de cemento-Schelfor izenarekin ere ezagutzen diren hurrengoak jakin nahi dira:

1. Zer dirulaguntza edo bestelako laguntza eman dizkio enpresa horri Nafarroako Gobernuak 1997tik hona? Jasotako diru kopurua zehaztuta nahi da, eta horiek jasotzeko arrazoiak adierazita.

2. Sozietateen gaineko zergan aplikatuko hobari eta kenkarien bidezko mesede fiskalik izan al du enpresa horrek? Urteak, aplikatutako kenkaria eta horrek egiten duen diru kopura adierazita nahi da.

3. Ba al daki Nafarroako Gobernuak enpresa horrek Nafarroako Ubideko zati batzuen adjudikazioa hartu duten enpresa batzuk hornitzen ote dituen?

Iruñean, 2001eko urriaren 29an

Eleduna: Joxe Fernando Barrena Arza

Nafarroak Madrilen duen enbaxadoreak eginiko lanei buruzko galdera**FORU PARLAMENTARI JOSÉ M^a AIERDI FERNÁNDEZ DE BARRENA JAUNAK EGINA**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko azaroaren 5ean egindako bilkuran, foru parlamentari José M^a Aierdi Fernández de Barrena jaunak Nafarroak Madrilen duen enbaxadoreak eginiko lanei buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2001eko azaroaren 7an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN TESTUA

EA/EAJ-PNV Parlamentuko Taldeari atxikitako Eusko Alkartasuneko foru parlamentari José Mari Aierdi Fernández de Barrenak, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta hurrengoek xedatutakoaren babesean, ondoko galdera egin diot Nafarroako Gobernuak Lehen-dakaritza kontseilariari idatziz erantzun diezadan:

Nafarroako Gobernuak erabaki zuen, orain gutxi, Madriliko Gortean Nafarroak izanen zuen enbaxadorea izendatzea.

Gure taldeak ez du izan orain arte erkidego honetako herritarren alde Ricardo de León jaunak egin duen lanaren berri.

Lehen. Zer lan egiten aritu da Ricardo de León jauna, izendatu zutenetik, Nafarroak Madril duen enbaxadore gisa?

Bigarrena. Zer jarduketa ditu orain abian?

Hirugarrena. Egin al du, denbora honetan, Nafarroako Gobernuak esleitutakoez gain beste lanik?

Laugarrena. Zer kostu izan du hilabeteko eta lanean hasi zenetik, kontzeptu guztiak kontuan hartuta, Nafarroako Madril duen bulego horrek? Gastu arruntak eta inbertsioak bereiztea nahi da.

Bosgarrena. Zer inbertsio-gastu aurreikusi dira Nafarroak Madril duen bulegoan?

Iruñean, 2001eko urriaren 26an

Foru parlamentaria: José Mari Aierdi Fernández de Barrena

Irrati-difusioko emisoren adjudikazioen egungo titularrei buruzko galdera*FORU PARLAMENTARI JOSÉ M^a AIERDI FERNÁNDEZ DE BARRENA JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko azaroaren 5ean egindako bilkuran, foru parlamentari José M^a Aierdi Fernández de Barrena jaunak irradi-difusioko emisoren adjudikazioen egungo titularrei buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2001eko azaroaren 7an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN TESTUA

EA/EAJ-PNV Parlamentuko Taldeari atxikitako Eusko Alkartasuneko foru parlamentari José Mari Aierdi Fernández de Barrenak, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta hurrengoek xedatutakoaren babesean, ondoko galdera egin diot Nafarroako Gobernuak Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilariari idatziz erantzun diezadan:

Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilariak, uztailaren 15eko 2343/1998 Foru Agindua bidez, frekuentzia modulatu uhin metrikozko irradi emisoreetarako baimenak eman zituen. Hori

bera gertatu zen zortzi urte lehenago 1990ko emisora-banaketarekin.

Adjudikazio horien baldintzak lehiaketaren oinarrietan azaltzen ziren; hauek ziren besteak beste: adjudikazioaren titularrak, horiek aldatzeko jarraitu beharreko prozedura, erkidegoko bi hizkuntza ofizialak erabiltzea nola balioetsiko zen, etab. Hori kontuan hartuta, hona galdera:

Lehen. Gure erkidegoko bi prozesu horietan, nortzuk dira gaur egun Nafarroako Gobernuak eginiko adjudikazioen titularrak?

Bigarrena. Zer prozedura jarraitu dira titular-aldaketak izan diren kasu guztietan? Jarraitu al dira oinarrietan ezarritako prozedurak?

Hirugarrena. Zer enpresek zuten aurreikusita euskarazko programak izatea?

Laugarrena. Gaur egun, programazioan, zenbatek betetzen dituzte aurreikusi zituztenak?

Bosgarrena. Zenbat puntu lortu zituen enpresa horietako bakoitzak euskarazko emisioengatik?

Seigarrena. Adjudikazioan, zer alde izan zen, puntuetan, prozesu haietan adjudikazio-hartzaile izan ziren enpresen eta adjudikaziorik lortzeko "zortzerik" izan ez zuen lehenbiziko enpresaren artean?

Zazpigarrena. Aurkeztutako eskaintza bakoitzean ezarritakoa betetzen dela egiaztatzeko, zer kontrol erabiltzen ditu gobernuak, zer bitarteko?

Iruñean, 2001ko urriaren 26an

Foru parlamentaria: José María Aierdi Fernández de Barrena.

Sanduzelain eta Arrotxapean eraikitako BOEen adjudikaziorako aurkezturiko eskariei buruzko galdera

FORU PARLAMENTARI FERNANDO VIEDMA MOLERO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko azaroaren 5ean egindako bilkuran, foru parlamentari Fernando Viedma Molero jaunak Sanduzelain eta Arrotxapean eraikitako BOEen adjudikaziorako aurkezturiko eskariei buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2001eko azaroaren 7an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Fernando Viedma Molerok, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikulua eta hurrengo babesean, galdera hau aurkeztu diot Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuari idatziz erantzun diezadan.

Etxebizitza, nafarrentzako, terrorismoa eta droga baino egoera makurragoan dago; horrela dio "navarrómetro" izena hartu duen CIESeko inkestak. Beraz, etxebizitzak gizartea kezkatzen du jada, eta arazoa da milaka herritarrentzat, ikusten baitute administrazio publikoak ez duela konpontzen eskubide konstituzional hori.

Nafarroako Gobernuak aginduta, bestalde, Nafarroan zeuden etxebizitza beharrei buruzko inkesta egin zen 2000ko lehenbiziko hiruhilekoan. Inkesta horrek erakusten duenez, Nafarroako familiek eta herritarrek eragiten duten etxebizitza-eskaera 17.374 etxekoa da; horietatik 4.669 etxez aldatzeko dira, eta 12.675 lehenbiziko etxebizitza lortzeko. Eskaera hori Iruñerrikoa da bereziki, non 13.433 etxe behar baitira; gainerakoak (3.941) beste eskualdeetan behar dira.

Inkesta horren beraren arabera, etxebizitzen eskaera guztira hartu (17.734) eta 12.320 etxebizitza "segmentu babesgarria" izeneko herritar multzoak eskatzen ditu, hau da, babes ofizialeko etxebizitzak lortzeko legezko baldintzak betetzen dituzten herritarrek. Segmentu babesgarri horretako 10.000 eskari gazte nafarrenak dira.

Zenbaki horiek, % 95,5eko konfiantza maila izan arren, zalantzan jarri ditu zenbaitetan Etxebizitza Departamentuak. Hala ere, administrazioak herritar horiei eginiko mesprezurik handiena Marcotegui kontseilariak egin zuen, zeinak dudan jarri baitzuen Sanduzelain eta Arrotxapean eginen diren 74 etxebizitzetako bat lortzearren Vinsan ilara luzeak egiten zituztenek babes ofizialeko etxebizitzen beharrik zutenik.

Horregatik, honako galdera hauek egin ditut:

1. Sanduzelain eta Arrotxapean eginen diren babes ofizialeko 74 etxebizitzak lortzeko 5.180 eskari egin dira. Eskari horietako zenbaitek betetzen ditu babes ofizialeko etxebizitzak lortzeko baldintzak?

2. Etxebizitza horietarako eskarrietatik 74 baino gehiagok badute puntuazio bera, zer irizpide erabiliko ditu Gobernuak berdinketa hori hausteko?

3. Segmentu babesgarriaren barrenean egonik, zenbat eskari artxibatu dira azken lau urte hauetan administrazioak ez zuelako nahikoa babes ofizialeko etxebizitza eskaerari aurre egiteko?

4. Babes ofizialeko zenbat etxebizitza egin dira aurten, eta 2001ean zenbat egitea aurreikusi du Etxebizitza planak?

5. 2001-2004 Etxebizitza Planak babes ofizialeko 10.000 etxebizitza eginen direla aurreikusi du (8.000, saltzeko, eta 2.000, aldir, errrentan jartzeko); eskaera, hala ere, lehen aipatutako inkestaren arabera, 17.734 etxebizitzakoa da, eta horietako 14.219 behar larrian daudenentzat dira

(etxebizitza hurrengo hiru urteetan behar duteneztat). Gobernuak nola pentsatzen du konpontzea Etxebizitza planak jasotzen ez duen 4.219 etxebizitzako behar hori?

Iruñean, 2001eko urriaren 30ean

Foru parlamentaria: Fernando Viedma Molero

Farmazia berriak irekitzeagatik igorritako tasei buruzko galdera

FORU PARLAMENTARI JOSÉ ANDRÉS BURGUETE TORRES JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko azaroaren 5ean egindako bilkuran, foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak farmazia berriak irekitzeagatik igorritako tasei buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2001eko azaroaren 7an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN TESTUA

“Nafarroako Demokratien Elkargunea” Parlamentuko Taldeari atxikitako foru parlamentari José Andrés Burguete Torresek, Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek xedatuaren babesean, hurrengo galdera egin diot Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezadan:

Nafarroako Gobernuak Osasun Departamentuak, sektorearen liberalizazio prozesua hasi zenetik, 113 farmazia irekitzeko baimena eman du. Zenbait farmaziak ateak itxi beharko dituzte, ez baitute bideragarritasun ekonomikorik izanen, merkatuak ezin baititu horrenbeste farmazia onar-

tu; bai foru administrazioa bai Nafarroako farmaziariaren elkargo ofiziala bat datoz horretan, eta sektorea pasatzen ari den egoerak kezkatzen dituela adierazi dute. Halaber, badira guztiz argitu gabe dauden eta argitu beharrezkoak diren beste zenbait gai.

Hori dela eta, hau jakin nahi dut:

1.- Nafarroak duen Tasa eta prezio publikoei buruzko Foru Legeak ezartzen duenez, 29.949 pezetako tasa ordaindu beharko da farmazia bat irekitzeko edozein administrazio-espeditente hasi aurretik. Zein tasa eskatu dira farmazia berriak irekitzeagatik? Zenbat kobratu zaio bakoitzari eta zenbat diru egiten dute, guztira, baimendutako espeditenteek?

2.- Farmazia Laguntzari buruzko Foru Legea Nafarroan indarrean sartu zenetik zenbat farmazia baimendu dira? Bete al dira foru legean ezarritako gutxienekoak? Legeak ezarritako gutxienekoak beteko dituzten zenbat farmazia ireki diren ba al daki Osasun Departamentuak? Foru legeak ezarritako gutxienekoak betetzeko baimendutako farmazia berriak ireki gabe, baimendu al da farmaziarik?

Iruñean, 2001eko urriaren 29an

Foru parlamentaria: José Andrés Burguete Torres

Radio Universidad eta NET 21 irratiaren euskarazko programazioaren jarraipenari buruzko galdera

BATASUNA PARLAMENTUKO TALDEAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko azaroaren 5ean egindako bilkuran, Batasuna Parlamentuko Taldeak Radio Universidad eta NET 21 irratiaren euskarazko programazioaren jarraipenari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak eskatu du Herrilan eta Azpiegitura Batzordean ahozko erantzuna eman dakion.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2001eko azaroaren 7an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN TESTUA

Batasuna Parlamentuko Taldeak, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduan xedatutakoaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, ahoz erantzuna izan dadin Herrilan eta Azpiegitura Batzordean.

Nafarroako Gobernuak 1998ko uztailaren 15ean ebatzi zuen FM irratiarako lizentzien azken emakidak norentzako izanen ziren, eta, hain zuzen ere, hauentzat izan ziren: Universidad de Navarrentzat –Radio Universidad– eta Medios de Comunicación 21rentzat –Net 21–. Lizentzia

horien adjudikazioa hartu zuten bi komunikabideek zenbait puntu lortu zituzten euskarazko programak

sartzeagatik haien programazioan. Hori kontuan hartuta, hurrengo galderak egin ditugu:

1. Net 21 eta Radio Universidadek, lizentzien emakida lortzeko lehiaketan aurkeztu zituzten proiektuetan, euskarazko programak izanen zituztela adierazi zuten, egiten al du Nafarroako Gobernuak irrati horien programazioaren jarraipenik egiaztatzeko euskarazko programazioa badutela, proiektuan adierazi bezala, bi irrati horiek?

2. Baiezkoan, zenbat minutu egiten dituzte bi irrati horietako euskarazko programek? Zehaztuta nahi dira euskarazko tarteak zeintzuk diren, zenbat minutu hartzen dituzten, orduetara, programen izenburuak eta programa mota.

3. Ezezkoan, aurreikusi al du gobernuak enpresa horiek kontrolatzea, jakin ahal izateko adjudikazioa hartu duten enpresek proiektuan adierazitakoak betetzen dituzten, kontuan harturik puntuak eman zitzaizkiela horregatik eta adjudikazioa horri esker hartu zutela?

Iruñean, 2001eko urriaren 30ean

Eleduna: Joxe Fernando Barrena Arza

Cascanten gaztelania ikasten laguntzeko klaseak ez emateko erabakia berraztertzeari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak Cascanten gaztelania ikasten laguntzeko klaseak ez emateko erabakia berraztertzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2001eko otsailaren 20ko 16. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2001eko martxoaren 15ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeko Eledun Juan José Lizarbe Baztán jaunak bi galdera egin ditu Cascanten gaztelania ikasten laguntzeko klaseak emateari buruz. Hona hemen Hezkuntza eta Kultura kontseilariaren erantzuna:

1. Cascanteko "Beata Vicenta María" Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe publikoaren irakasle dotazioa joan zen ikasturtean erabili ziren irizpide berberekin ezarri da aurten ere. Ikastetxe honek 259 ikasle ditu gaur egun (iaz baino 8 gehiago),

14 taldetan banaturik (iaz baino bat gutxiago). Datu hauek 18,5 ikasleko batez besteko ratioa ematen dute talde bakoitzean, eta ez da ezein taldetan gainditzen gehieneko ratioa, taldeko 25 ikaslerena, alegia.

Joan zen ikasturtean Cascanteko ikastetxe publikoak 23 maisu-maistrez osaturiko plantilla zuen, horietarik 3 (gorputz hezkuntza, musika eta euskara ematen zutenak) beste herri batzuetako ikastetxe batzuetan ere aritzen ziren. Dotazio honek 1,53 irakasleren ratioa ematen du ikasle talde bakoitzeko, eta horri gehitu beharko litzaiokie beste irakasle baten lanaldi erdia, galderan aipatzen den arrazoia zela-eta hasi baitzen lanean.

Aurtengo ikasturtean, plantilla 22 maisu-mais-trak osatzen dute, eta ibiltarien kopurua joan zen urteko bera da, horrek ematen duen ratioa 1,57 irakaslerena da ikasle talde bakoitzeko, aurten ikasle talde bat gutxiago baitago. Beraz 0,04ko aldea dago ikasturte honetako ratioan eta hori bider ikastetxeko 14 talde, irakasle baten lanaldi erdia egiten du, hau da, iazko ikasturtean zuen langile dotazio bera du aurten ere.

Nafarroan, ikasle taldeen kopurua 10etik 17ra bitartekoa duten ikastetxeen multzoan, non Cascante baitago, batez besteko ratioa 1,46koa da. Beraz, Cascanteko ratioa batez bestekoa baino 0,11 handiagoa da, hau da, 1,5 irakasle gehiago du. Irakasle baten dedikazioa, ibiltaria izateagatik, alde batera uzten badugu, Cascanteko Haur eta

Lehen Hezkuntzako ikastetxe publikoan irakasle baten lanaldi erdi bat gehiago dute, antzeko tamaina duten ikastetxeetan dagoen batez beste-koarekin alderatuta.

Azkenik, ohar gaitezen atzerriko ikasleen kopurua handitzeak ikastetxearen antolaketa desberdina ekar dezakeela ikasle horietako batzuen behar bereziei erantzutearren, baina ez irakasleen kopurua handitzea, plantillen egoera erreala kontuan harturik.

2. Hezkuntza eta Kultura Departamentuak bilera bat egin zuen Cascanteko Udalarekin, azken honek eskatuta, eta horrez gain, prest agertu zen ikastetxeko eskola kontseiluan aurrean egoera aztertu eta departamentuaren arrazoiak azaltzeko ere, aurrerago arrazoi horiek ikuskatzaileak zuzendariari azaldu bazizkion ere. Egin ere egin zen bilera hura, eskola kontseiluko kideekin, eta azaldu zitzairen ikastetxeko plantilla bertako beharrei modu egokian erantzuteko behar adinakoa zela, aurreko ikasturtean bezala. Hortaz, departamentuak bere plangintzari eusten dio, arrazoizkoa eta datu objektiboren arabera justifikatua baita.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta hurrengoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 2001ko martxoaren 8an

Hezkuntza eta Kultura kontseilaria: Jesús M^a Laguna Peña

G Saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Nafarroako Foru Komunitatean behi-aziendaren entzefalopatia espongiformearen jarraipena eta kontrola egiteko batzorde bereziak onetsitako txostena

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko azaroaren 5ean eginiko bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren ondoko erabakia hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Komunitatean behi-aziendaren entzefalopatia espongiformearen jarraipena eta kontrola egiteko batzorde bereziak, 2001eko urriaren 23an egindako bileran, emandako txostena ikusita, ERABAKI DA:

1. Txosten horren jakitun dagoela adieraztea.
2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2001eko azaroaren 7a

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Nafarroako Foru Komunitatean behi-aziendaren entzefalopatia espongiformearen jarraipena eta kontrola egiteko batzorde bereziak onetsitako txostena

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak 2001eko otsailaren 5ean hartutako erabaki baten bitartez eratu zen Nafarroako Foru Komunitatean behi-aziendaren entzefalopatia espongiformearen jarraipena eta kontrola egiteko batzorde berezia. Horren helburua da behi-aziendaren entzefalopatia espongiformea aztertzea eta horri buruzko informazioa jaso eta proposamenak egitea.

Batzordea 2001eko otsailaren 20an eratu zen, eta bere bileretan parte hartu dute zenbait kolektibok, agintarik, adituk eta batzorde bereziaren helburu den gaiaren esparruan proposamenak eta iritzia eman zituzten parte hartu beharrekotzat jo ziren pertsona guztiek. Halaber, Batzordeak gai horri buruzko dokumentazio ugari bildu du.

2001eko irailaren 18an eztabaidatu eta, kasu batzuetan, onetsi ziren Parlamentuko taldeek aurkezturiko proposamen batzuk. Hain zuzen ere, proposamen horiek osatzen dute Mahaiari eta Eledunen Batzarrari aintzat har dezaten bidali zaien txostena. Batzorde Bereziaren eraketa, antolamendu eta funtzionamenduari buruzko arauetako bosgarrenak xedatuari jarraikiz bidali zaie txosten hori.

1. IRITZI OROKORRAK.

Nafarroako Parlamentuaren aburuz, behi-aziendaren entzefalopatia espongiformearen (alegia, BEEren) krisia ez da arazo zehatz edo mugatu bat bakarrik; arazo orokor baten agergerri ere bada; arazo horren sorburua nazioartean eta Europan dagoen nekazaritza-eredu produktiozale, intentsibo eta kostu baxuko produkziozale, hain zuzen ere, pentsuak, eta ez lurrian oinarrituriko produktuak, erabiltzen dituen.

Nafarroako Parlamentuak beharrezkotzat jotzen du nekazaritza-ereduari buruzko eztabaida sakon bati ekitea. Eztabaida horrek alternatibak aurkitu beharko ditu gaur egungo eredurako, zeinaren ezaugarri baitira industriaren eta nekazaritzaren arloko ustiategi handiak, enplegu gutxiokak, kalitate urrikoak eta ingurumenen kalte larriak eragiten dituztenak.

Nafarroako Parlamentua etorkizunean lehentasunez familien ustiategi laguntza ematearen aldekoa da, interes sozialak, ingurumenekoak eta elikagaien kalitateari dagozkionak bermatzeko. Ildo horretan, Parlamentuak Nafarroako Gobernuari premiazten du jardueraren ildo hori susta dezan eta gobernu zentralaren nahiz Europako erakundearen aurrean defenda dezan.

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari eskatzen dio BEEren krisiaren kudeaketan erantzukizuna daukaten Foru Komunitateko gainerako erakundeekin lankidetzan zintzoan jardun

dezan, eta bereak diren erantzukizunei ez diezaien ihes egin haiek beste erakunde batzuei egotziz –bide zibil eta penaletara joko zuela mehatxu eginez eta guzti, Nafarroan sortutako material arriskutsuen tratamendua zela-eta Iruñerriko Mankomunitatearekin gertatu zen bezala.

2. NEKAZARITZARI ETA ABELTZAINZARI DAGOZKIEN NEURRIAK.

Nafarroako Gobernuak behar diren xedapenak prestatuko ditu herrialde arriskudunetatik bai gizentzeko eta kontsumorakoa bai umatzekoa den behi-azienda inportatzea debekatzeko, eta horretarako kontrolak ugarituko ditu.

Nafarroako Gobernuak, nekazaritza eta abeltzaintza arloetako sindikatuarekin eta ekologisten kolektiboekin lankidetzan arituz, sektorea erabat birmoldatzeko plan bat prestatuko du, eta Parlamentura igorriko du, bertan eztabaidatu eta onesteko.

Nafarroako Gobernuak lehenetsunez emanen dizkio dirulaguntzak nekazaritza eta abeltzaintza ekologikoaren produkzioari.

Nafarroako Gobernuak elikagaien kalitatearen zehaztapenean erabiltzeko parametro objektibo batzuk prestatuko ditu, hala nola hondakin edo kutsagai kimiko eta/edo mikrobiozkorik ez izatea.

Nafarroako Gobernuak 2002-01-01a baino lehen abian jarriko du proteina begetalak produzitu eta hedatzeko pizgarriak emateko eskualde-programa bat.

Abeltzaintzaren Sektorearentzako laguntza berariazkoak.

Erromako Hitzarmeneko 87. artikulua baimendu egiten du hondamendi naturalei edo ohiz kanpoko gertakariari aurre egiteko aldi baterako laguntza nazionalak ematea; xedapen horretan oinarriturik, Europar Batasuneko zenbait herrialdek, Frantziak edo Alemaniak kasu, laguntza horiek eman dituzte. Nafarroako Parlamentuak adierazten du BEEak eragindako krisia zuzeneko laguntza publikoak baimentzea justifikatzen duen "ohiz kanpoko gertakarietat" jo behar duela Nafarroako Gobernuak.

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du sektorea ordezkatzeko duten erakundeek eskaturikoa onar dezan eta haiekin negoziatzen has dadin, abeltzainek jasandako galerak behar bezala ordainduko dituzten laguntzak ahalbidetzeko.

Saneamendu-kanpainak direla-eta abeltzainei kalte-ordainak ematean, honako kontzeptu hauek kontuan hartuko dira:

a) Abere bakoitza hiltzearen ondoriozko laguntza edo kalte-ordaina; merkatuko benetako prezioan oinarrituz kalkulatu da.

b) Eskuratu gabeko irabaziak.

c) Hildako aberea ordeztzeko laguntza.

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du abeltzaintza-sektorearen eskara ekonomikoari erantzuteko beharrezkoak diren neurriak eta erabakiak har ditzan, 2002rako 435.815.000 pezeta zenbatekoa bideratuz, Nafarroan behi-aziendaren entzefalopatia esponjiformeak sektoreari ekarritako arazo ekonomikoak konpontzeko. Eskaturiko neurri horien kostua honela xehekatzen da:

a) 75.000.000 pezeta, hil egin behar izan diren 12 hilabetetik beherako abereak direla-eta laguntza emateko.

b) 235.815.000 pezeta, behi ume-hazleentarako laguntza emateko.

c) 125.000.000 pezeta, hazteko edo hiltzeko saldutako esneko aratxeentarako laguntza emateko.

Kasuan kasuko aseguruak formalizatzen ez diren bitartean, Nafarroako Gobernuak bere gain hartuko ditu ustiatzearen hildako abereen hilotzak bildu eta garraiatzearen gastu guztiak.

Halaber, bizirik dauden abereak garraiatzeko beharrezkoak diren albaitaritza-ziurtagirien gastua osoki finantzatu da.

Nafarroako Gobernuak premiatzen da ez-ohizko neurriak ezar ditzan osasun-arrazoien ondorioz edozein abeltzaintza-ustiatzei hustu behar izatearen muturreko kasurako, eta laguntzak antola ditzan, hustuketari aurre egiteko kalte-ordainez ez ezik abeltzaintza-jarduerari berriro ekiten laguntzeko neurri ekonomiko ere osatuak.

Nafarroako Gobernuak plan berezi bat prestatuko du bertako arrazei eta abeltzaintza estentsiboaren arloko praktikei eta maneiatzeari laguntzeko. Plan horretan, gutxienez ere, honako hauek bilduko dira:

a) Bertako arrazekin lan egiten abeltzain-elkar-teentzako laguntzak ugaritzea.

b) Nekazaritza Politika Komunaren esparruan beharrezkoak diren erreformak bultzatzea kasuan kasuko erakundeetan, politika horretatik abiatu

benetan laguntza eman ahal izateko abeltzaintza estentsiboari.

c) Nekazaritza eta abeltzaintza ekologikoari laguntza ematea.

d) Aurrerakoien hazkuntza bertako arrazekin egiteko laguntza ematea.

e) Hobekuntza genetikoko politikei laguntza ematea.

f) Olio-labore eta proteaginosoetara bideraturiko laguntza modu iraunkorrean ezarrita egotea, eta ez dadila izan inoiz edo behin emandako aparteko laguntza bat.

Nafarroako Gobernuak indartu eginen du "Nafarroako Aratxea" Kalitatezko Deiturarentzako laguntza ekonomikoa, halako moldez non honako hauek egin ahalko baitira:

a) Kontrol-neurriak kate guztian zehar ugaritu: ustiatagietan, hiltegi eta zatikatze-geletan, harategietan eta gainerako salmenta-tokietan.

b) Maila guztietan prestakuntza-ekintzak burutu, haragia jatearen komenigarritasunari eta "Nafarroako Aratxeak" eskaintzen dituen bermeei buruzko funtsezko ideiak helarazi ahal izateko.

c) Komunikazio Plan bat egin.

d) Sistematikoki antolaturiko sustapen/publizitate kanpainak egin, kontsumitzailearengan eragin eta haren konfiantza lortzeko.

3. ZERIKUSIA DAUKATEN BESTE SEKTORE BATZUEI DAGOZKIEN NEURRIAK.

Nafarroako Gobernuak beharrezkoak diren lege-aldaketak egin daitezzen bultzada eman du, gure Komunitatean merkaturaturiko haragi guztien etiketek argi eta garbi ager dezaten haragiaren jatorria, ustiatagia, aberearen arraza, ustiategi-mota, elikadura eta aberea hil duteneko hiltzea.

Nafarroako Gobernuak finantzaketa-sistema bat ezarriko du hiltegiek legea bete ahal izan dezaten behi-aziendaren entzefalopatia espongiformearekin zerikusia daukaten puntuetan (alegia, bizkarrezurra kentzea, eta haragia elikadura-katean osasungarritasun- eta higiene-baldintzarik onenetan sartzeko hartu behar diren bestelako neurriak).

Nafarroako Gobernuak behar diren neurriak hartuko ditu hiltzegietan material arriskutsuekin lan egiten duten langileak behar bezala babestuta daudela bermatzeko. Babes horretarako, adituek gomendatutako elementuak erabiliko dira.

4. INGURUMENA.

Nafarroako Gobernuak hiru hilabeteko epean txosten bat prestatuko du gure Komunitatean dauden animalia sarraskijaleen multzoari buruz.

Sarraskijaleei dagokienez dagoen abelburukargatik abiatuz, txostenak adierazi beharko du zeintzuk diren haren elikadura-beharrizanak; halaber, gaur egun dauden simaurtegi baimenduak eta gaur egungo eskariari aurre egiteko behar direnak zehaztu beharko ditu, eta haien kudeaketa-sistemaren nahiz bertan erabiliko den haragimotaren berri ere eman beharko du.

Behi-aziendaren entzefalopatia espongiformearen kontrolerako Europar Batasunak agindutako neurri guztiak betetzeko xedez birmoldatuko diren simaurtegien kontrola bermatzeko, beharrezkotzat jotzen diren neurri osagarriak hartuko ditu Nafarroako Gobernuak.

Nafarroako Parlamentuari neurri horien berri emanen zaio.

Nafarroako Gobernuak premiatzen da haragi-irriak hondakindegietan lurperatzeko baimenik eman ez dezan, eta horren ordez Europako jarraibideek baimentzen dituzten gainerako aukerak jarritan.

5. OSASUNA ETA IKERKETA ZIENTIFIKOA.

Nafarroako Gobernuak albaitaritza-establezimenduei eta abere-osasunerako medikamentu-kontrolari dagokienez Farmazia Laguntzari buruzko Foru Legea betetzen dela bermatuko du.

Nafarroako Gobernuak beharrezkoak diren funtsak zuzkituko ditu BEEa ikertzeko berariazko Plan baterako, zeina prest eduki beharko baitu 2002-01-01a baino lehen, eta ordurako ere Nafarroako Parlamentura igorrita egon beharko du, onetsia izan dadin.

Plan horretan honako puntu hauek hartuko dira kontuan:

1. Lehentasuneko helburuak eta horretarako kontusailak zehaztea.

2. Taldeen arteko lankidetzari lehentasuna emanen dioten deialdi publiko eta lehiaketetan hautatzea proiektuak.

3. Gure Komunitateko zentro eta laborategietan dauden azpiegitura eta giza baliabideak erabiltzea.

4. Estatuko eta Europako esparruan lankidetzarako bitartekoak bilatzea.

Nafarroako Gobernuak Nafarroako Osasun Sareko ospitale publiko guztiak autopsia gelak egokitzeko eta, horrela, nekropsiak berme eta segurtasun osoz egin ahal izateko beharrezkoak diren neurriez hornituko ditu.

Halaber, entzefalopatia espongiforme kutsakor baten ondorioz hil direla susmatzen diren pertsonei nekropsiak egiteko behar diren neurriak hartuko ditu.

Era berean, zerbitzu horietan Lan Arriskuei buruzko Legea bete dadin zainduko du.

Nafarroako Gobernuak Osasun Publikoaren Institutuko zaintza epidemiologikoko programen barruan entzefalopatia espongiforme kutsakorrak zaintzeko programa berariazko bat sartuko du, eta koordinatzaile bat izendatuko du, bai maila epidemiologikorako bai klinikorako.

6. INFORMAZIO-KANPAINAK.

Nafarroako Parlamentuak Foru Gobernuari eskatzen dio bultzada eman diezaiela elikagaien segurtasuna bermatzeko osasun-kontrolen kalitate eta mailaren berri emateko kontsumitzaileei zuzenduriko informazio-kanpainei.

Nafarroako Parlamentuak Foru Gobernuari galdatzen dio Foru Komunitateko berezko produk-

tu eta abeltzaintza-deituren sustapen-kanpainei bultzada eman diezaien, haien prestigioa berreskuratzeko. Abeltzaintza ekologikoa ere laguntza publikoaren bitartez susta dadila eskatzen da.

Nafarroako Gobernua premiatzen da kontsumitzaile-elkarteekin lankidetzan arituz kontsumitzaileen prestakuntzarako plan bat taxutu dezan, elikagai osasungarriagoen eskarira zuzenduriko filosofia bat, kontsumo arduratsuarena, sustatzeko. Plan hori hiru sektoretara zuzendu beharko da: elikagai-establezimenduetara (eremu handiak, nagusiki), ekoizleengana (nekazariak eta abeltzainak) eta administrazio publikoetara. Plan hori Nafarroako Parlamentura igorriko da, bertan eztabaidatu eta onesteko.

7. NAFARROAKO PARLAMENTUKO OSOKO BILKURAK BERRESTEA.

Batzorde Bereziak Eledunen Batzarrari eskatzen dio txosten hau, zeinean biltzen baitira gehiengoaren onespina daukaten ondorioak, Parlamentuaren Osoko Bilkurari aurkez dakion, berrespenerako, eta bere edukia gauzatzeko beharrezkoak diren parlamentu-ekimen guztiak izapida daitezela.



NAFARROAKO PARLAMENTUKO
ALDIZKARI OFIZIALA

HARPIDETZA ORRIA

Izen-deiturak

Helbidea

Telefonia *Hiria*

P. K. *Probintzia*

Ordaintzeko:

Dirua Nafarroako Aurrezki Kutxako 2054/0000 41 110007133.9 zenbakiko kontu korrontera igorri edo bertan sartu

HARPIDETZAREN PREZIOA ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA Urte bat..... 6.300 pta. Aldizkari Ofizialaren aleko prezioa..... 150 » . Bilkura Egunkariaren aleko prezioa..... 185 » .	IDAZLARITZA ETA ADMINISTRAZIOA NAFARROAKO PARLAMENTUA «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Arrieta 12, 3 31002 IRUÑA
--	--